


# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Otsailak 13  
395. zenb.



**Gerra garaian  
alderdiei eta sindikatuei  
kendutako ondasunak  
itzultzeko ordua**

1932an Arrasateko Eusko Gaztedik batzokian pilotalekua egiteko atera zuen akzio txartela.

## Xemeikorik ere ez Arrasaterako

**IKUSPEGIA: ANDONI URIBETXEARRIA • KULTURA: AMAIA OTADUI  
IRITZIA: LIBE ZUBIA • 30 GALDERETAN: JESUS MARI HERIZ**

*Edo lanez aldatzen duzu,  
edo umezain bat hartu,  
edo familia osoa zoratu,...  
edo bestela geurera etorri:*

# IKAS 10


**IKAS 10, LA MERCED IKASTETXEAK**, zerbitzuen kontzeptu berri bati jarri dion izena da. Zerbitzu hauek zuei hobetoen datorkizuen modura uztar daitezke: **ORDUTEGI ZALUA**, goizeko **07:00** eta arratsaldeko **18:00ak arte**, zuentzat kosturik gabekoa. **HAURTZAINDEGIA**, 2 urtetik 6 urtera arte. **AUTOBUS** zerbitzua Eskoriatzatik. **JANGELA** edo jangela libre, eta abar. Irakaskuntza kalitaterik hoberena, zerbitzu zabal eta onenekin, eta hori guztia **preziorik hoberenean**, zure seme-alaben heziketak ez ditzan hankaz gora jarri, ez zuen elkar bizitza, ezta zuen aurrekontua ere. Dei iezaguzu, galde ezazu eta aukerarik hoberena hartu.

**Zuen beharretara egokituko gara eta.**



*Haur hezkuntza  
Lehen hezkuntza • DBH  
2 urtetik 16 urtera*

## Haurtzaindegia

2 urtetik 6 urtera



19:30etatik 19:30ra



*la merced*  
IKASTETXEA

ARRASATE

(943) 79 27 73

La Merced-ek  
GEHIAGO  
eskaintzen dizu.

# Eskola porrota

**A**sko hitz egiten da eskola porrotari buruz (nik gustukoagoa dut *arrakasta eza* porrota baino, baina tira), ardura handia sortuz, batik bat gurasoengan ebaluazioak gainditzen ez direnean, gehienetan errua ikaslearen bizkarrera jausten baita.

Baina ezin dezakegu eskola porrota ebaluazioak erakusten dituen emaitza txarrekin bakarrik berdindu. Emaitzak erlatiboak dira. Zerbait adierazten badute ere, ez da egia osoa. Gainera, nahiz eta ebaluazioaren emaitzak onak izan, ez badira prestatu ikasleak gizartean ondo molda daitezen, hori ere eskola porrot gisa har dezakegu.

Ikuspegi zabalagoa azaldu nahiko nuke porrota ondo ulertu ahal izateko. Horretarako, hemen doaz hainbat zerbaki.

- Derrigorrezko



Andoni Uribetxebarria

**“Gurasook gehiago sartu behar gara seme-alaben hezkuntzan”**

Hezkuntza gainditzen ez duten ikasleak %25 inguru dira.

- Batkillergoa gainditzen ez dutenak, %40 pasatxo.
  - Lanbide Hezkuntza (bigarren kurtsoa) gainditzen ez dutenak, %45 pasatxo.
- Zerbaki hauek antzekoak dira Euskal Herrian, European eta beste herri garatu batzuetan.

Zerbaki hauek ikusi ondoren, aipa daiteke eskola porrota ikaslearen errua dela? Ez dut uste. Gure eskola ez bada gai ikasleen hiru laurdenei Derrigorrezko Hezkuntza ziurtatzeko, zerbaitek huts egiten duen seinale da. Beraz, esan liteke gure hezkuntza sistemaren porrota dela.

Hau saihesteko zer neurri hartzen dira eskolan edo administrazioan? Zer egiten dute guraso elkarteek eta aitatamek?

Eskola arduradunek ondo ezagutzen dute errealitate hau. Guraso

askok, berriz, ez. Esan liteke, baina, halaberharrezko mezua bailitzan barneratuta dugula eta ikastetxe guztietan zabaldurik dagoen gaixotasun sendaezintzat jotzen dugula. Nik ez dakit zein izango den irtenbidea. Gauza asko aldatu beharko lirateke, noski, baina egoera hau onartzea edo ikastetxe bat besteekin alderatuz normaltasunaren barruan sentitzea oso gogorra iruditzen zait.

Gurasook ere izango dugu ardura baina bai eskolari bai administrazioari ere, zertxobait gehiago eskatu behar diegu. Gurasoak, gehiago sartu beharko gara, zeren eta heziketak ez baitu ametitzen bakoitza bere aldetik joan eta gero, errua inorena dela pentsatzea. Ezin gara ibili gurasook geure aldetik eta eskola beretik. Elkarrekin ados jarri behar gara.

Hau egitea ez da erraza izango, eta denbora luzea igaro beharko da arazoa konpontzeko. Ez litzateke berri ona izango 2013. urtean 1997an jaiotako 40 gaztek Derrigorrezko Hezkuntza ez gainditu izana Arrasaten. ■

## 395. zenbaki honetan

1998ko otsailaren 13an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen.....	<b>10/13</b>	Kulturaren txokoa.....	<b>29</b>
Irakurlea idazle.....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza.....	<b>30/31</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia.....	<b>21/23</b>	Denborapasak.....	<b>32</b>
Euren ikuspuntutik.....	<b>8</b>	Kirolak jokoan.....	<b>24/25</b>	Ikusi eta entzun.....	<b>33</b>
Astearen errepassoa.....	<b>9</b>	30 galderatan.....	<b>28</b>	Fotozaharra.....	<b>34</b>

### Ikuspegia

**Andoni Uribetxebarria.....3**

Euren ikuspegitik

**Libe Zubia.....8**

Aurrez aurre


**Amaia Esparza.....26/27**

Kulturaren txokoa

**Amaia Otadui.....29**

Asteko gaia

**Gerra garaian kendutako ondasunak itzultzeko lege proiektua.....21/23**



Gerra garaian alderdiei eta sindikatuei kendutako ondasunak itzultzeko lege proiektua dela eta, Arrasateko kasuan ez da izango ezer erreklamatzeko aukerarik.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabai. **Kazetaritzaileak:** Iñaki Zubillaga, Marian Porcos, Pabli Montero. **Publizitateak:** Kaitlin Altende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaki Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gaztaria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorna, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kooi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barria. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Cordillua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzientzen erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Goio Arana.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kulturaren laguntza

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 13**

- 22:00ak arte: Zabala, Zarugalde.
- Gauez: Estella, Bergara.

**Larunbata 14**

- 22:00ak arte: Ruiz, Maala.
- Gauez: Mozos, Bergara.

**Igandea 15**

- 22:00ak arte: Morales, San Andres.
- Gauez: Mozos, Bergara.

**Astelehena 16**

- Gauez: Azkoaga, Ferrerías.

**Asteartea 17**

- Gauez: Español, Iturriotz.

**Asteazkena 18**

- Gauez: Corcuera, Musakola.

**Osteguna 19**

- Gauez: Irizar, Erguin.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**

Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
 Igualatorioa . . . . . 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) . . . . . 79 39 00  
 (emakumeak) . . . . . 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11

**Gurutze Gorria**

Bergara . . . . . 76 55 76

**DYA**

Antzuola . . . . . 78 71 57

**Anbulatorioak**

Arrasate (Larnaldiak) . . . . 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
 • Espezialitateak . . . . . 77 05 78  
 . . . . . 77 12 64  
 Oñati . . . . . 78 08 52  
 Eskoriatza . . . . . 79 98 58  
 Aretxabaleta . . . . . 79 74 58  
 Aramaio . . . . . (945) 45 51 16

**Anbulantziak**

Gipuzkoako ambulanziazki . . 45 87 44

**Udaltzaingoa**

Oñati . . . . . 78 04 11  
 Bergara . . . . . 76 14 69  
 Arrasate . . . . . 79 14 39  
 Aretxabaleta . . . . . 79 10 52  
 Eskoriatza . . . . . 088

**Ertzaintza**

Arrasate . . . . . 79 71 99

**Suhiltzaileak**

Udal taldea . . . . . 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua . 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088

**Matxurak**

Urak (udal zerbitzua) . . . . 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) . . . . 12 01 62  
 Gasak . . . . . 900 40 05 23  
 . . . . . 79 78 44  
 . . . . . 79 76 78

**Garraioak**

Taxiak . . . . . 79 12 22  
 PESA . . . . . 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**

Iturbide Egoitza . . . . . 79 72 11  
 Abaroa Jubilatuen egoitza . . . 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**

KIUB-OMIC . . . . . 79 51 55

**Monterron liburutegia**

Monterron . . . . . 77 01 05

**Irratia**

Arrasate Irratia . . . . . 79 58 77

**13 ostirala**

■ **ZINEA**  
*Titanic.* Alai zineman arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ **GUJERATEKO ADIVASIEN HITZALDIA ARETXABALETAN**  
 Iñazio Galdos Aretxabaletako jesuitarekin etorri diren Gujerateko adivasiek hitzaldia eta dantzak eskainiko dituzte arratsaldeko 19:00etan Aretxabaletako Zaraia zineman.

**14 larunbata**

■ **ZINEA**  
*Sagu Txiki, Sagu Maite.* Alai zineman arratsaldeko 16:45etan. *Titanic.* Arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**  
 Maskarada taldearen *Nerudaren Postaria* antzez-lana eskainiko da Amaia antzokian, gaueko 22:30etan. Sarrera: 1.000 pezeta. Gazte Txartelarekin 800 pezeta. Euskarazko emanaldia.

■ **JAM ARETOAN EMANALDIA**  
 2 kate eta *Bad F Line* taldearen musika emanaldia, gaueko 22:30etan Bergarako JAM aretoan. Sarrera: 700 pezeta.

■ **II. SAGARDOTEGI EGUNA ASTIGARRAGAN**  
 Astigarragan izango den II. Sagardotegi Egunera joateko, autobusa eguerdiko 12:30etan irtengo da Garibai kaleko geralekutik. AEK-k antolatatu du.

■ **MOTORIZALEEN BILKURA ELGETAN**  
 Larunbat eta igandean motorzale bilkura egingo da Elgetan, Eibarko Arrate Motorzale Elkarteak antolatuta.

**15 igandea**

■ **ZINEA**  
*Sagu Txiki, Sagu Maite.* Alai zineman, arratsaldeko 16:45etan. *Titanic.* Arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

■ **ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**  
 Maskarada taldearen *Nerudaren Postaria* antzez-lana eskainiko da Amaia antzokian, gaueko 19:30etan. Sarrera: 1.000 pezeta. Gazte Txartelarekin, 800 pezeta. Gaztelaniazko emanaldia.

■ **EL CASERIO ZARZUELA**  
 Jesus Guridiren *El caserio* zarzuela entzun ahal izango da Aretxabaletako Parrokiaren, arratsaldeko 18:00etan. Julian Barrenetxea Abesbatzak, Aretxabaletako Abesbatzak eta Leizarra Musika Eskolak hartuko dute parte.

**UGARAN jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tfnoa: 79 76 58  
 ARRASATE

**Memesa**  
 79 42 22

**MARKO-JARTZEAK ALDEDI**  
 Biteri, 8 • ARRASATE  
 Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**16 astelehena**

■ **ZINEA**  
*Titanic.* Alai zineman arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

# 17

## asteartea

### ■ ZINEA

*Titanic.* Alai zineman arratsaldeko 18:30etan eta 22:00etan.

# 19

## osteguna

### ■ ZINE KLUBA

*Kansas City.* Amaia antzokian gaueko 21:30etan. Sarrera: 400 pezeta. Gazte Txartelarekin 350 pezeta.

# 18

## asteazkena

### ■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: *Chiapas; Gaur Egungo Egoera.* Hizlaria: Jabier Rodriguez, Chiapasen aldeko talde bateko partaidea. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da, Monterronen.

### ■ HISTORIARI BURUZKO HITZALDIA

Gaia: historiaurrekoa-Erromatarkuntza. Hizlaria: Sonia Polo. Eskola Politeknikoko areto nagusian arratsaldeko 19:00etan

### ■ ALMEN IKASTOLAREN BILERA

Almen ikastolaren proiektua gurasoei ezagutzera emateko bilera egingo da Almen ikastolan. Euskarazko bilera arratsaldeko 17:45etan izango da. Gaztelaniazkoa, berriz, 19:00etan.

### ■ SAN FRANTZISKO XABIERREN IKUSENTZUTEKO EMANALDIA

*Haur Hezkuntzatik Lehen Mailara Etorkizunerako Urratsa* gaiaren inguruan ikusentzuteko emanaldia Gazteluondoko batzar aretoan. Euskarazko emanaldia 17:45etan. Gaztelaniazkoa 19:00etan.

### ■ TXERNOBILEN LAGUNAK ELKARTEAREN AURKEZPENA

*Txernobilen Lagunak* elkartearen aurkezpena egingo da Monterronen, arratsaldeko 18:30etan.

### ■ UDAL ZERGEN ORDAINKETA

Udal zergak ordaintzeko eskaerak egiteko epea datorren otsailaren 16an zabalduko da, eta apirilaren 8ra arte iraungo du. Eskaerak Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan bete behar dira. Txanda alde zurretik eskatu behar da, 79 09 00 telefonoan.

### ■ MEXIKORI BURUZKO ERAKUSKETA MONTERRONEN

Otsailaren 16tik 22ra arte, Mexikori buruzko erakusketa egingo da Monterronen. Orduetgia: egunero 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:00ak arte. Komite Internazionalistak antolatuta.

### ■ LA CABRA TIRA AL MONTE ANTZERKIA ARETXABALETAN

Otsailaren 21ean, Karra Elejalderen *La cabra tira al monte* antzerkia ikusi ahal izango da Aretxabaletako Zaraia Zimenan. Ikuskizuna gaueko 22:30etan hasiko da.

### ■ ESKULAN IKASTAROAK ESKORIATZAN

Eskularen ikastaro bi antolatu dira Eskoriatzan. Asteartean Reme Berasategi izango da irakaslea.

Orduetgia: arratsaldeko 18:15etatik 20:15etara. Hasiera martxoaren 3an. Asteazkeneko ikastaroa, Mila Akizuk emango du. Orduetgia: arratsaldeko 15:15etatik 17:15etara. Hasiera martxoaren 4a. Prezioa: 3.000 pezeta. Izen ematea otsailaren 23a baino lehen egin behar da Eskoriatzako Kultura Etxean.

### ■ FAMILIA ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROAK

Familia eta Gizarte Heziketarako Zentruak lau ikastaro antolatu ditu: *Sukaldaritza eta Gozogintza* ikastaroa astelehentan emango da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00ak arte. *Autokontrol ikastaroa* ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara. *Lehen mailako ingeles ikastaroa* ostiraletan 15:30etatik 17:00etara. *Klinika laguntzaile izateko azterketak prestatzeko ikastaroa*, ostegunetan eta ostiraletan 18:00etatik 20:30etara. Izena emateko epea zabalik dago. Berri gehiagorako, zentrura jo (79 04 59).

■ **LAS VENENO  
TALDEAREN ANTZERKIA**  
Otsailaren 21ean *Las Veneno* taldeak, *¿Que fue de las hermanas Sue?* antzezlan eskainiko du Amaia antzokian, gaueko 22:30etan.

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo  
handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

ANTZERKIA

AMAIA ANTZOKIA

**OTSAILAK 14**  
**LARUNBATA**  
22:30etan  
(Euskaraz)


**OTSAILAK 15**  
**IGANDEA**  
19:30etan  
(Gaztelaniaz)

**SARRERAK:**  
1.000 Pta.

Gazte-Txartelarekin: 800 Pta.

# Merudaren Postaria

*Pazientzia sutsua*




*Antonio Skarmeta*



ARRASATEKO UDALA

# Mjaskarada

# Emango zenieke egun bateko soldata premia dutenei?




**Jose Jabier Lete**  
(54 urte)  
Enpresarioa

Erreza da baietz esatea, baina gero ikusi behar egiten den ala ez. Nik proposatuko nuke baietza ematen dugun lagunei promesa betetzeko eskatzea.



**Olatz Etxabe**  
(33 urte)  
Gizarte zerbitzuko langilea

Bai, baina hori ez da arazoaren irtenbidea. Lan orduak banatu, gastu sozialak igo eta antzerako neurriak hartu behar-ko lirateke.



**Javier Ruiz de Munain**  
(48 urte)  
Harreman elkarte

Idea ona iruditzen zait. Harremanetik horrelako zerbait bultzatuko dugu: enpresak egun bateko soldata lurralde behartsuei ematea urtero, garapen proiektuetarako.



**Jose Mari Astigarraga**  
(59 urte)  
Parrokoa

Bai, justiziagatik. Guk soldata txikia izan arren, Hirugarren Munduarekin edo behartsuen aldean aberatsak gara. Hamarrekoa ematea ere, gaurkotu egin beharko genuke.



**Maria Rodriguez**  
(57 urte)  
Etxekoandrea

Horrekin lagun badezaket, ez zait inporta. Orain, seme-alaben ikasketak direla eta, gastu handiekin gabiltza, baina badakit munduan ni baino okerrago jende asko dagoela.



**Hodei Lazpita**  
(20 urte)  
Langilea

Ez naiz sekula planteatu, baina ideia ez zait txarto iruditzen. Egun bateko soldata ez da ezer, eta beste batzuei laguntzeko balio badu, primeran!



**Rafael Lopez**  
(42 urte)  
Langilea

Bai, jakina, gertu egongo nintzateke. Era berean 0,7ko plataformaren proiektua aurrera ateratzea ere gustatuko litzaidake.



**Mari Cruz Garcia**  
(39 urte)  
Etxekoandrea

Bai, egun bateko soldata emango nuke. Gainera, horrekin zerbait hobetuko balitz, asko poztuko nintzateke.

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A  
Gerriko ala bizkarreko minez zabilta?  
Lunbago eta ziatikarako faja elastikoak ditugu zuretzat  
Zugan pentsatuz, beti laguntzeko prest  
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®  
• BURDINEZKO ATEAK  
• ETA PERTSIANAK.  
• AUTOMATISMOAK.  
• KONPONKETAK.  
Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE  
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

USTEAK USTE

**Hirugarrenean bai?**

**H**ilabete isilik eta noraezean ibili eta gero, bihar *Extra* agerkaria kaleratuko omen da berriro. Ez du erraza izango toki bat egitea, irten denetik aldaketa larregi bizi izan ditu eta.

Egunero kalera-tzen hasi zen. Handik puntuko, eten labor baten ostean, astean hiru aldiz plazaratzeari ekin zion. Orain astean birritan aterako omen da. Ez da ez egunkaria ezta aldizkaria ere. Guk agerkaria deitu diogu, izen honek ez du eta, maiztasunaren markarik.

Azken hilabetean isilik egon da. Sortzailetako batzuek bide berriak urratu nahi izan dituzte, arrakasta handirik barik, antza. Orain sortzailetariko bat bakarrik geratu da proiektu berrian: Mariano Arrieta. Hori dela eta, batzuk hasi dira esaten *Extra* aukera politiko jakin batera makur litekeela eta horrek ere ez dio mesederik egingo.

*Extrak* erronka galanta du aurrean. Zortzerik onena opa diot.

-----Joxe Aranzabal-----



**Herri eskoletan, hizkuntza plangintza**

Libe Zubia

**E**usko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak aukeraketa berezia egin zuen 1996an Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hizkuntza plangintzak abian jartzeko, helburu garbi batekin: eskola guztietan euskararen erabilera indartzea. Deialdi hura ikastaro batean gauzatu zen. Hogeita hiru ikastetxek osatu zuten lehen taldea. Ikastaroaren helburua izan zen eskola bakoitza bere plangintzaren diseinatzaile izatea.

Beraz, errealitatearen azterketa eta diagnosis egin ondoren, ikastetxe bakoitzak hartu zuen plangintzaren diseinua egiteko ardura, egoera bakoitzari zegokion mailan. Arrasaten, Erguin eskola izan zen aitzindari. Gaur egun

ere aurrera darrai.

1997an Hezkuntza Sailak deialdi zabala kanporatu zuen eta EAEko 240 ikastetxek eman zuten izena. Arrasaten Erguin eta San Andres herri eskolak, Lanbide Hastapena eta Institutua (DBH eta batxillegoak) dira euskararen aldeko proiektu honetan ari direnak. Abendurako eskola hauek guztiek bete zuten beren lehen lana: errealitatea aztertu eta plangintza diseinatzea. Une honetan, gauza-



“  
Erguin, S. Andres,  
Lanbide Hastapena eta  
Institutua ari dira  
proiektu honetan  
”

tzen hasi da diseinaturiko plana. Euskararen erabilera indartzeko plangintza honi pausoz-pauso ekin zaio, gelaz kanpo, pasabideetan, atsedendaldietan, gurasoekin, aisialdian...

Orain arte, euskarak izan duen arnasteko leku funtsezkoenatariko bat, hezkuntzak eskaini dio. Hala ere, oraindik ere badu berdegune gehiagoren beharra. Bailarako herri eskolen izenean, herritar helduei, haur eta gazteen eredu izateko ahalegina egiteko eskatzen dizuegu, denona den hizkuntza denok erabil dezagun.

Etorkizuneko gizarteak sortuko duen gehiengoak ezagutzen du euskara, baina bada oraindik ere beste lan bat: hizkuntzarekiko barne sentipen gustukoak izaten lagundu behar diegu, benetan eta gustura ari daitezen. Horixe da gure erronka eta hezkuntza plangintza honen helbururik nagusienetakoa.

Libe Zubia,  
Arrasateko Institutuko irakaslea



**KONTRATAK  
IRVROK S.L.  
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.:77 09 92 / Faxes:79 78 14  
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 78 21 82  
OÑATI



astea bi hitzetan

■ **Fagor Arrasatek 1.500 milioiko lana egin du Mexikon**

Mexikoko Puebla hirian autogintzarekin oso lotuta dagoen industria dago. Orain dela gutxi, Krupp-Hoesch enpresa alemanak oso lantegi modernoak ireki zuen, Volkswagen eta beste autogileei kalitate handiko txapa hornitzeko.

Lantegi hau 12 hilabetean egin da eta Fagor Arrasatek txapak eta bihurtzeko eta mozteko erabiltzen dituen teknikak jarri ditu. Guztira 1.500 milioi pta eskuratuko ditu Arrasateko kooperatibak lan honengatik.

Lantegiko instalazioak Fagor Arrasatek jarri ditu, tartean prentsa bidezko mozteko makinak, luzeran moz-

tekoak eta flejadokoak.

Fagor Arrasatek 16.400 milioi pta fakturatu zituen iaz, 96an baino 7.000 milioi gehiago. Bere produkzioaren %67 esportaziora doa. Hori dela eta, ordezkariak ditu herrialde hauetan: Estatu Batuetan, Alemanian, Frantzian, Brasilen, Japonian, Txinan eta Mexikon.


■ **Mondragon Eskola Politeknikoak ISO ziurtagiria berretsi du**

Joan den abenduan zehar, Aenor enpresako zenbait adituk kontu ikuskaritza egin zuten Mondragon Eskola Politeknikoan, ISO 9001 kalitate ziurtagiriak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituenentz erabakitze-ko. Kontua da eskolak aise gainditu dituela probak. Bera

da, oraingoz, ziurtagiri hau duen unibertsitate erakunde bakarra.

■ **Arrasateko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmena sinatu dute**

Arrasateko Udalak onartu egin du urtebetez luzatzea Eusko Ikaskuntzarekin duen hitzarmena. Honen arabera, Eusko Ikaskuntzak 700.000 pta jasoko ditu aurtan Arrasatek. Horren truke bi lan egingo ditu: alde batetik, transkribatu egingo ditu lehen egin barik geratu ziren Erdi Aroko zenbait agiri Arrasatekoak. Bigarren lana, berriz, Esteban Garibairen memorien edizio kritikoa gainbegiratzea izango da. Lan hori Deustuko Unibertsitatean egiten ari dira.



■ **MUXIBAR BASERRIKO PINUDIAN OBUSA**

Gerra denborako obusat aurkitu zuten astelehen goizean Muxibar baserriaren atzealdeko pinudian. Pinuak mozten zebiltzala, garabiak lurra eragin eta bonba agerian geratu zen. Artilleriako obusa zen, 200 milimetroko kalibrekoa. Metro bat luze eta 40 kilokoa, ez zuen espoletarik. Artzilariek ezandarazi zutenean, Fagorren ere entzun zuten.

“Iñaxio Kortabariaren izena urrezko letratatan idatzita dago Realaren historian. Liberoa izan zen eta Liga bi irabazi zituen Real haren kapitaina. Gehienek baloia jokoan ateratzeko dotoreziagatik eta zelaian jartzen zuen errespetoagatik gogoratzen dute. Hori gutxi balitz, gure herriaren historiako protagonista izan zen, Jose Angel Iribarrekin batera, Atotxan ikurrina atera baitzuen, futbolzale guztien beginietan gordeta geratu den derby batean”.

■ **XABIER ISASA**

Deia, 1998ko otsailak 6

“Realzaleak harrirta daude denboraldi honetan, bi arrazoirengatik: ustekabean sartu delako titulua lortzeko lehian eta Aitor Lopez Rekarte gaztea (22 urte) agertu delako. Txuri-urdinen azken sailkapena gorabehera, kanpaina honek Luis Mari Lopez Rekarte Real, Barcelona eta Deportivoko jokalaria ohiaren anaia txikiaren sendotza utziko dio Donostiako taldeari Ligako ezker atzelaririk inportanteenetako bat moduan. Aranzabal nazioarteko jokalaria zelai erdian jokarazteak argi erakusten du Realeko teknikariek sinesten dutela Lopez Rekarte dela etorkizuneko ezker atzelaria”.

■ **J. ORTIZ DE LAZKANO**

El Correo, 1998ko otsailak 6

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Ispiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95  
ARRASATE

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a


Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 79 46 62

# Askagintzak epaileen geldotasuna salatu du droga auzietan

Askagintzak, drogomenpekotasunaren aurkako Arrasateko taldeak, joko bat antolatu du droga trafikoa inguruan. "ADOREk (drogomenpekotasunaren aurkako plataformak) orain dela lau urte salatu zuen Galindo jenerala Donostiako auzitegi probintzian. Harrezkero, lau epaileren eskutik pasatu da sumarioa eta ez da ezer ere aurreratu" azaldu du Deunoro Otero, Askagintzako partaideak. "Askagintzatik informazioa era erraz eta dibertigarrian eman nahi dugu, jendeak sumario horrekin gertatzen dena ezagut dezan. Bestetik, epaileek droga trafikatzailen aurrean hartzen duten jarrera, eta justiziaren geldotasuna salatu nahi dugu".

## JOKOAREN ARAUAK

Jokoari hasiera emateko, Askagintzak, hormirudiak ipini zituen atzo herriko zenbait tabernatan, Eskola Politeknikoan, Erdi eukaltegian



Askagintzak liburu bat eta disko bat zozkatuko ditu asteko.

eta Gaztetxean. Hormirudietan, ADOREk Galindo jeneralarari epaitegian jarritako auziaren inguruko informazioa jasotzen da. Horietan Askagintzak galdera bat egingo du astero. Erantzuna eza gutzen duten lagunek, fitxa bat bete eta eskura egongo den postontzira botatzea besterik ez dute. Askagintzak liburu

bat eta 7 Eskale taldearen disko bat zozkatuko ditu astero asmatzailen artean.

Bukatzeke, droga trafikatzailen eta horien aurka ezer egiten ez duten epaileen kontrako manifestazioa deitu du ADOREk martxoaren 14rako. Askagintzak autobusak jarriko ditu Donostiara joateko.

## Autobus geralekua

Autobus geraleku berria izango dugu herrian. Geralekua, Hiper Eroskiren parean dauden biribiletan ipiniko da. Eroskiko autobusek eta lineakoek erabiliko dute geralekua. Norabide bietan jarriko diren bi aterpeak jartzeko, adjudikazioa egin zuen Gobernu batzordeak astelehenean, 1.800.000 ptako kostoarekin.

## Guardia Zibila tabako bila

Guardia Zibilak herriko zenbait taberna eta denda arakatu zituen asteazken goizean, kontrabandoko tabakoaren bila. Poliziek bi patroletan ibili ziren goizean herriatik zehar. San Andresen, Munarren eta erdialdean geratu izan ziren, eta hainbat taberna eta bideo klubetan sartu ziren.

Dirudienez, leku pare batean aurkitu zuten zerbait. Hala ere, Arrasateko Udal-tzaingoak adierazi duenez, Guardia Zibilak ez zuen inor atxilotu.

## Jaiotzak

- Alex Arana Barrutia. Urtarrilaren 29an.
- Jon Ander Narbaiza Moreno. Otsailaren 1ean.
- Eider Gay Igartua. 2an.

## Hildakoak

- Jesus Riego Seves. 70 urte. Urtarrilaren 29an.
- Juan Manuel Ozaeta Unamuno. 60 urte. Otsailaren 2an.
- Marcelina Algaba Sanabria. 92 urte. 3an.
- Manuel Lage Fariñas. 65 urte. 7an.

# Caja Laboral izan zen iaz eraso gehien jasan zituen finantza erakundea EAEn

Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailak jakitera eman duenez, Euskadiko Kutxa izan zen iazko urtean eraso gehien jasan zituen finantza erakundea Euskal Autonomia Erkidegoan: laurogei eraso, 500 milioi pezetako galerak eragin zituztenak. Haren atzetik BBV, BBK eta Gipuzkoako Kutxa etorri ziren.

Denen artean bostehun era-

so jaso zituzten eta 1.300 milioi pezetako diru galerak.

Finantza etxeak aseguratutik baldin badaude, ordea, galdutako hamar pezetatik bederatzi aseguru partzueren batek ordaintzen die, eraso hauek "arriku berezitat" jotzen dira eta.

Hirurogeita hamargarren hamarkadan ezagutu ziren lapurretek kristal blindatuak

ekarri zituzten bankuen eta aurrezki kutxen sukurtsaletara. Oraingo erasoek, berriz, pertsiara blindatuak. Hala eta guztiz ere, zaila da erasoetatik libratzea.

1998. urteari dagokionez, Euskadiko Kutxa, esate baterako, iazko bide beretik doala dirudi, joan den asteburuan Elorrioko sukurtsala kiskali egin baitzuten.

# Udalak denbora nahi du AED, Txatxilipurdi eta Arko elkarteekiko hitzarmenak sinatzeko

Astelehenean egin zuen bileran, Gobernu batzordeak mahai gainean utzi zuen Euskara batzordetik iritsi zitzaion proposoamena, AED, Txatxilipurdi eta Arko elkarteekin urteko hitzarmena sinatzeko.

Hitzarmen hauetan elkarre bakoitzak urterako zein ekintza antolatuko dituen adierazten da; baita udalak zein ordainketa eta zenbateko laguntzak emango dituen ere; horrekin batera, kobraketak arautu, urte bukaeran egindako lanaren memoria eta diru kontuak zuzitzeko premia zehazten da.

1997an Arrasateko Udalak ia 60 milioi ptara ordaindu zituen hiru elkarteekin sinatutako hitzarmenetan.



Txatxilipurdi elkarteak zerbitzu ugari eskaintzen die herriko gaztetxoel.

Aurtengoetan, Euskara batzordeak onartuak dituenak, 0,5eko igoera proposatzen da.

Arrasateko Udalak Arkoekin, Arrasate Komunikabideak elkartearekin alegia, sinatu zuen era honetako lehen hitzarmena 1989an. Ondoren AEDrena eta Txatxilipurdirena etorri ziren. Denak ere urteroz berritze dira.

tzarmena 1989an. Ondoren AEDrena eta Txatxilipurdirena etorri ziren. Denak ere urteroz berritze dira.

## Hilabete isilik egon eta gero, *Extra* agerkaria astean birritan kaleratuko da

Hilabete isilik egon ondoren, *Extra* agerkaria bihar agertuko da berriro Deba Garaiko kioskoetan. Aurrerantzean astean bi egunean kaleratuko da: asteazkenetan eta larunbatetan. Aldiko 24 orrialde kaleratuko ditu. Lehen bezala, harpidetzak

600 pta balioko du. Ale bakoitzeko prezioa, berriz, 75 pta.koa izango da.

Aipatzekoa da hasierako bultzatzaileen artekin bakarra geratzen dela *Extran*: Mariano Arrieta, Jose Mari Erañak eta Iñaki Azkoagak orain ez bide dute ardurarik

proiektuan. Zuzendaria ere lehengoak izango da: Arantxa Egoskozabal oñatiarra. Erredakzio taldea ere ia lehengo bera izango da. Arduradunek aditzera eman dutenez, larunbatetik aurrera *Extrak* hainbat aldaketa eta hobekuntza izango ditu.

*Extra* Deba Garaiko kazeta izateko asmoarekin jaio zen 1997ko irailaren 19an. Hasieran egunero saltzen zen. Geldiune baten ostean, berriz, astean hiru egunean kaleratzeari ekin zion. Gabonak ezkeror itxita egon da.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdea E-0-4  
Telefonoa: 791814  
Faxa: 792041

ARETXABAETA

**GAMMA**

**ELEKTROLOGIA  
ZENTROA  
BEHIN-BETIKO  
DEPILAZIOA**

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

# Metaleko 630 langilek badute lan hitzarmena 98rako

Arrasateko Gelma, Polmetasa, Roneo eta Uribesalgo enpresek sinatu dituzte dagoeneko 98. urteari dagozkion lan hitzarmenak. Enpresa hauek metal saileko 630 langile biltzen dituzte, hamar langiletik lau, alegia.

Gelmak 2000. urtera arteko lan hitzarmena sinatu du. Urte honetarako %3ko igoera erabaki du, iazko Kontsumorako Prezioen Indizea baino puntu bat gainerik. Roneok ere beste horrenbeste erabaki du: %3ko igoera. Polmetasak, berriz, %2,5ekoa, IPC baino puntu erdi gainerik. Igoera handiena Uribesalgok izan du: %3,5, hau da, puntu bat eta erdi IPCren gainerik. Gelman UGT da sindikatu nagusia. Polmetasan, Roneon eta Uribesalgon, ostera, ELA.

Jarduera inportantea duten beste enpresa batzuk —Joma, Aranzabal eta Alejandro Altuna, esate baterako— negoziatzen ari dira oraindik. Hil honen bukaerarako erabakita izango dituzte lan hitzarmenak.




Roneok %3ko igoera erabaki du 98rako.

Horiez gain, enpresa txiki asko dago Mondragoen, besterik barik eta gauzak ez zailtzearren, Gipuzkoako lan hitzarmena onartu dutenak. Hitzarmen horren arabera, aurtengo igoera %2, lekoa da, ia-ia IPCrena.

Metal saileko lan hitzarmenak agintzen duenez, aurtun 1.743 lanordu egingo dira. Astean 37 ordu eta erdi.

## Lan hitzarmen guztiak IPCren gainerik

	98rako igoera (%)	Langile kopurua	Sindikatu nagusia
• GELMA	3	340	UGT
• POLMETASA	2,5	115	ELA
• RONEO	3	100	ELA
• URIBESALGO	3,5	74	ELA



Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoentzako **altzari** sail berria topatuko duzu!

Zatoz estreinatut dugun erakusketa berria ezagutzera!

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

## HIES EKIMENA


Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16 ARRASATE



# SAGU TXIKI, SAGU MAITE

ZUZENDARIA: Lennart Gustafsson • GIDOIGILEA: Lennart Gustafsson • ANIMAZIOA: Lennart Gustafsson, Jonas Adner, Ylva-Li Björk • MUSIKA: Ylva-Li Björk, Urban Wrethagen • ARGAZKIGINTZA: Mikael Gerdin, Anders Holt • EKOIZPENA: KANALFIKM & THE SWEDISH FILM INSTITUTE Suedia.

ZINEMA

Noiz: **otsailak 14 eta otsailak 15**

Non: **Alai Zineman** • Ordua: **17:00etan**



ARRASATEKO UDALA

Euskara Saila ■



## PAKORI OMENALDIA

Larunbatean bete zen urtebete Pako Hernandez Gesalibarko motorzale gaztea Salamancara bidean istripuz hil zela. Pako oso gustuko zituen Kurtzeta gaina eta inguruko parajeak eta horregatik, auzoko lagunek eta Arrasateko motorzale elkar-tekoek haritz gazte bat landatu zuten han omenduaren oroimenez. Aurrerantzean Kurtzeta gaineko haritzaren kerizpean Pako gogoratuko dute lagunek.



## HINDUAK ARETXABALETAN

Inazio Galdos, jesuita aretxabaletarra itzuli egin da Indiatik hango lagun indiar batzuekin. Adivasi etniako hamalau andra-gizon etorri dira Galdosekin Aretxabaleta eta Euskal Herria bisitatzen. Bide batez, aretxabaletarrek haien erritoak eta dantzak ezagutu dituzte.



## AINGERU AHOTSAK

Santa Agedako abesbatzetan ahots sakonak entzun genituen jaiaren bezperan herriko kaleetan zehar. Baina Musakolan aingeru ahotsak entzuteko aukera ere izan zuten:

Musakolako eskolako neska-mutilen ahots finak. Argazkian, Musakolako jubilatuen etxe aurrean daude eskolako txikienak, baina auzoko kale guztiak ibili zituzten.

## HORI DA ZORTEA!

Koro Barrena Arrasateko udal langileak, AEK-k zozkatutako saria irabazi du. Hemendik aurrera, Korok 150.000 pezeta jasoko ditu hilero, inongo lan edo ahalegi-rik egin barik. Erdu euskaltegikoak pozik daude Korori tokatu izanarekin, lehenengo aldia da eta, saria herrian geratzen dela. Azaldu beharrik ez dago Kororen poztasuna!



## IZENAK

### Jose Angel Achon

irakasleak Esteban Garibairen Memoriak lana gainbegiratu eta zuzenduko du. Jose Angel Achon Deustuko Unibertsitateko irakaslea da. Eusko Ikaskuntzak aukeratu du lan hau zuzentzeko.

### Nekane San Migel

epaile arrasatearrak Tolosako Galtzaundi Forumean hitz egin zuen ostegunean. Hitzaldiaren gaia: Instrukzio Penala Espainia-ko Legedian. Nekane San Migel Tolosako Auzitegiko epailea da.



## BONBA FENOMENOA

Batzuek lapurreta izan zela esan dute. Besteentzat derbyan banakako berdinketa lortzea ia-ia kopa irabaztea baino garrantzitsuagoa izan zen. Bonba Taldea, nola ez, derbyan izan zen. Zaratatsuenak izateaz gain, taldea fenomeno sozial bat bihurtzen ari da Donostia aldean. Aroetan denek ezagutzen dute dagoeneko Arrasateko taldea, eta askok, *Bonba* izena margotzen dute euren bekokietan.



### Adrian Zelaia

Kooperatibak Euskal Herrian izeneko liburua idatzi berri du, Udako Euskal Unibertsitateak argitaratu diona. Adrian Zelaia Bilbon jaio zen, abokatua da eta MCCn egiten du lan, Lege Aholkularitzako arduradun gisa. Hau izan da kooperatibagintzari buruz idatzi duen laugarren liburua.

**Monte**  
taberna

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56

**OSORIK**  
PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**URRATS**

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE



## Bigarren aldirako dena gertu

Asteburuko jardunaldia jokatu ondoren, sailkatu ahal izan diren taldeek bigarren aldira leutsiko diote. Hemendik aurrera partida hobekak ikusiko dira Zaldibarren, eta garaipenak gehiago balioko du. Zergatik? Taldeen helburu nagusia ahalik eta urrutien heltzea delako.

## Laburrak

### ■ BILERA MONTERRONEN

Bigarren aldia prestatzeko bilera otsailaren 16an egingo da Monterronen. Bilera arrasaldeko 17:00etan hasiko da. Antolatzaileek esan dutenez, bilera garrantzitsua da, eta dei egiten diete talde guztiek, joan daitezten. Bigarren aldirako taldeen zozketa astelehen horretan egingo da, ATBko *Mondrasport* kirol saioan

### ■ MAKAI KALERA, AZKEN AURREKO JARDUNALDIAN

Makai taldea ez zen aurkeztu Koka Junior taldearen kontra jokatzera. Beraz, kalean dago. Makaiakoak D taldeko behealdeko lekuetan zeudenez, ez zuten sailkatzeko aukerarik. Alde horretatik ez dute ezer galdu. Bai ordea, txapelketa hasieran jarri zuten diru ezarpena.

### ■ B TALDEAN POSTU BAKARRA ERABAKITZEKO

A eta D taldeetan sailkatuta daude talde guztiak. Multzo bakoitzetik hamaika. B taldean, berriz, lehenengo bederatziek lortu dute txartela, baina postu bat dago jokoan. Azken jardunaldian hori erabakiko da. Aukera gehien DKB taldeak badu ere, Rotor de Bolbogrado eta Komando Alpargat, gauzak zail jartzen saiatuko dira. Dena dela, DKB zuzenean sailkatuko litzateke, Ainarexiaren kontra garaipea lortuz gero.

### ■ URIBE AUZOA TXAPELKETARAKO BILERA

Aurten ere, Uribe Auzoa Futbito Txapelketa jokatu da. Hori dela eta, antolatzaileek bilera antolatu dute astearterako. Monterronen arrasaldeko 17:30etan hasiko den batzarrean, txapelketako xehetasun guztiak azalduko dira.

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	16	14	1	1	99	39	27
Branaka Taberna	16	12	1	3	75	40	23
Sokoakoak	16	11	2	3	91	40	22
Garaje Oscar	16	10	1	5	70	45	21
ACSurcos	16	10	1	5	79	51	21
Nuevo Taberna	16	10	1	5	77	56	19
Tamagotxi	16	9	2	5	48	47	18
Leya	16	8	4	4	93	65	18
KKjauri	16	8	2	6	52	45	18
Ke Oxtias	16	7	4	5	70	46	18
Jotakabau	16	7	2	7	40	48	16
Pipwhis	16	6	1	9	46	44	13
Cartonajes Igamo	16	5	2	9	45	57	10
Ganbelas	16	3	4	9	42	51	8
Babajana	16	3	3	10	40	76	7
Potosorri	16	2	3	11	45	76	7
Onaniereng	16	2	2	12	47	89	6
Nacex.S	16	0	0	16	31	181	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
D.A Iriztu	16	10	5	1	73	56	24
Fraguel Gol	16	10	4	2	70	47	23
Orlando Piratas	16	11	2	3	69	27	22
Lauthrebrunnen	16	10	2	4	70	54	22
Betrayer	16	9	4	3	66	40	21
Jay holiigans	16	11	0	5	75	49	20
Jako Al Rey	16	9	3	4	68	48	20
Pepelus	16	9	1	6	70	63	19
Irati STS	16	8	2	6	64	54	17
Zotz	16	8	1	7	56	52	15
Bukanak	16	5	2	9	63	84	12
DKB	16	5	2	9	58	66	12
KomandoAlpargat	16	5	2	9	49	67	11
Rotor de Bolbogr.	16	4	3	9	52	56	10
Ainarexia	16	3	2	11	52	89	6
Arrogoi Taberna	16	3	0	13	32	55	6
Sobred. de Claro	16	2	1	13	45	99	5
Epeh	16	2	0	14	23	42	4

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranaja Mek.	16	13	2	1	84	39	27
Estrella Taberna	16	14	0	2	104	51	26
Koka Juniors	16	12	2	2	94	49	24
Lorategi	16	11	0	5	102	43	21
Aldibi	16	9	3	4	101	58	20
AT Celaya	16	9	2	5	67	49	20
Aurrera Bolie	16	8	3	5	78	56	18
Txeyenex	16	8	2	6	83	60	17
Totem	16	8	2	6	73	35	16
Los Heredia	16	7	3	6	63	46	16
Insert Coin	16	8	1	7	71	60	15
Borrock Roll	16	6	3	7	58	66	13
Aldapa Taberna	16	5	1	10	69	89	11
Kamasutra	16	2	5	9	45	67	9
Etxe Mobil	16	3	1	12	49	116	7
Iluna Taberna	16	2	1	13	41	106	4
Makai	16	2	0	14	32	119	3
Elisabeth	16	1	1	14	32	119	3



**HORI BAI LASAITASUNA!** Leya taldekoek badute lasai egoteko arrazoirik. Hamaseigarren jardunaldian bigarren aldirako txartela poltsikoan zuten. Hala ere, profesional onak direla erakutsiz, Ke Oxtias taldeari 7 eta 5 irabazi zioten. Horrela segi, urruti heltzeko bidean zaudete eta!





## HARROTASUNEZ

Seme-alaben hezkuntza. Bizitzako gairik kontuzkoenetarikoa. Asmatu egin behar da. Zorionez, badago hezkuntza eredu bat benetan behar duzun segurtasuna eskaintzen dizuna: **Eskola Publikoa**. Orain, **zure txanda da**. Zure seme-alaben bizitza markatuko duen erabakia har ezazu. **Irakaskuntza kalitate bikaina**, pertsona bakoitzaren **hezkuntzan diharduten irakasleak, esperientzia eta primerako baliabideak** dituztenak eta **euskaraz** eskaintzen den irakaskuntza. Informatu zaitez **Eskola Publikoko** edozein ikastetxetan. **Izan, itxura eman baino gehiago.**

**A r r a s a t e k o**  
**Ikastetxe Publikoak**  
gogoko zenuen irakas mota




San Andrés: 79 20 69



Erguin: 79 77 74



Musakola: 79 04 49



Institutoa: 79 44 47

## Hurrengo partiduak

### Otsailak 14, Larunbata

#### Zaldibar

08:50	Aldapa taberna - Iluna Taberna
10:00	Lorategi - Los Heredia
11:00	Ganbelas - Garaje Oscar
12:00	Estrella taberna - Insert Coin
13:00	Rotor de Bolbogrado - Bukanak
14:00	Nacex.S - Tamagotxi
15:00	Elisabeth - Aldibi
16:00	Komando Alpargat - Zotz
17:00	Ke Oxtias - Branka Taberna
18:00	Ainarexia - DKB
19:00	Jey Holigans - Lautherbrunnen

#### Iturripe A

11:00	Sokoakoak - KKjuri
12:00	Koka Juniors - A T Celaya
13:00	AC Surcos - Leya
14:00	Etxe Mobil - Naranja Mekanika
15:00	Babajana - Argi Ibili
16:00	Nuevo Taberna - Potrosorri
17:00	Jotakabau - Cartonajes Igamo

### Otsailak 15, Igandea

#### Zaldibar

09:50	Pepelus - DA Iriztu
11:00	Aurrera Bolie - Txeyenex
12:00	Irati STS - Betraye
13:00	Borroch Roll - Totem

## Emaitzak

#### A taldea

Ke Oxtias 5 - Leya 7  
 Jotakabau 0 - Argi Ibili 9  
 Sokoakoak 6 - Onanireneg 2  
 Babajana 1 - Pipwhis 0  
 AC Surcos 6 - Tamagotxi 8  
 Cartonajes Igamo 6 - Potrosorri 5  
 KKjauri 2 - Garaje Oscar 6  
 Ganbelas 4 - Nuevo Taberna 1  
 Nacex.S 2 - Branka Taberna 10

#### B taldea

Pepelus 3 - Fraguel Gol 10  
 Jey Holigans 1 - Betraye 5  
 Komando Alpargat 1 - Epeh 0  
 Irati STS 2 - Jako Al Rey 2  
 Orlando Piratas - Arrogio taberna  
 Lautherbrunnen 8 - DKB 2  
 Zotz 5 - Bukanak 2  
 Rotor de Bolbogr. 0 - Ainarexia 3  
 Sobredosis de Claro 5 - DA Iriztu 7

#### D taldea

Estrella Taberna 8 - Los Heredia 2  
 Aurrera Bolie 2 - Naranja Mek. 2  
 Aldapa taberna 4 - Borroch Roll 6  
 Etxe Mobil 5 - Totem 6  
 Lorategi 6 - Aldibi 3  
 Txeyenex 7 - AT Celaya 0  
 Iluna Taberna 8 - Kamasutra 6  
 Makai 0 - Koka Juniors 1  
 Elisabeth 3 - Insert Coin 8



# VENTANAS SAN MIGUEL LEIHOAK

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE  
 Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA  
 Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ

Zure ongizatea  
 babesteko gaude



**VENTANAS  
SAN MIGUEL  
LEIHOAK**

SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).


NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

**902 202 502**





## BIKAIN

Pasaten den urte bakoitzak garrantzi handiagoa dauka. Bai fisikoki eta baita pertsonalki ere hazi egiten gara. Etorbizuna markatzen duten momentuak dira eta guztiz trebatuta heldu behar gara. Horretarako behar-beharrezkoa da irakasleak buru eta bihotz ihardutea, **irakaskuntza kalitatezkoa** izatea, **giroa aparta** izatea **pertsona bezala** hezitzeko, lagunak, instalazioak, jangela, etab. **Eskola Publikoan** gainera, etorkizunari begira, **hainbat aukeren artean nahi duzuna** hauta dezakezu. Informatu zaitetz **Eskola Publikoko** edozein ikastetxetan.  
**Izan, itxura eman baino gehiago.**

**A r r a s a t e k o**  
**Ikastetxe Publikoak**  
gogoko zenuen irakas mota




San Andrés: 79 20 69



Erguin: 79 77 74



Musakola: 79 04 49




Institutoa: 79 44 47

muebles



**ERAKUSKETA  
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA  
APAINKETA**

**ZAPATU  
ARRATSALDETAN  
ZABALIK!**



**Grupo Arkauzen** denak dira abantailak.  
Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster etxera eraman nahi izangoduzu.  
**Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.**

**A R E T X A B A L E T A**

Araba etorbidea, 20 • Tel./Faxa: 79 23 51

# Gerra garaiko ondasunak: ezer erreklamatzekorik ez

**L**ege proposamenak dioenez, "gerra garaian kendu zitzaizkien ondasunak itzultzea, justizia historikoa betetzea da". Gobernuarentzat "bidegabekeria hura konpontzeko bidean jartzeko ordua da".

Asmoak asmo, ez da bate-re lan erraza izango itzuli behar diren ondasunen zerrenda eta bakoitzaren balioa zehaztea. Orain 60 urte gerra garaian gertatutako kontu batez ari gara. Kasu askotan, dokumentazioa, baita ondasunak berak ere, galdu egin

**Joan den abenduaren 26an, gerra garaian alderdiei eta sindikatuari kendutako ondasunak itzultzeko lege proiektua onartu zuen Ministro Kontseiluak. Lehendakaritzarako Jose Maria Aznar-i baietza emateko, EAJK ezarritako baldintzetako bat betetzera dator legea.**

**Lege proiektua Gorteetan dago orain. Bi kamaren onarpena jaso eta gero, alderdiek eta sindikatuak urtebeteko epea izango dute, artxiboetan arakatu, dokumentazioa osatu eta eskakizunak aurkezteko.**

**Arrasateren kasuan, ez dago dudarik. Alderdi eta sindikatu guztiek errentan edo norbaitek utzita zituzten orduan egoitzak. Beraz, ez dago eskatzeko ezer.**

dira. Alderdiak eta sindikatuak, dena den, hasita daude zerrendak prestatzen. Horrek, nola ez, artxibo eta errejistroak

ikerketzera bultzatuko ditu.

EAJ da lana aurreratuen duen alderdia. Galtier izenez ezaguna den 1989ko txoste-

nean, gerra garaian kendutako ondasun guztiak zehaztu zituen. Besteak beste, Hego Euskal Herriko lau herrialde-etako hogeitaz bati aldarrikatzen ditu. Arrasatekoa ez zen alderdiaren jabetzakoa, eta ez dago zerrendan.

Oraindik ez dago garbi kontu hau noraino ailegatuko den, baina ziurtzat jotzen da buelta bat baino gehiago emango duela. Oraindik zutik dauden eraikuntzen kasuan, zaila izango da jabetzera frogatzeko dokumentuak biltzea. Desagertu direnen kasuan, erakinen balioa zehaztu behar-



1932an Arrasateko Eusko Gaztedik batzokian pilotalekua egiteko atera zuen akzio txartela.

ko da dirua berreskuratu ahal izateko. Eta eurenak ez ziren egoitzetan bazeuden ere, eta hori da Arrasateren kasua, alderdi batzuek eskubide patri-monialak aldarrikatzeko asmoa dute; hau da, etxe bat errentan hartuta dutenei edo erabiltzaileei legeak aitortzen dizkien eskubideak. Honek zailtasun handiagoak ekarriko ditu. Akordio politikorik ezean, luze jo dezake gaiak.

Kontu honen abiapuntua, 1936. urteko irailaren 13an faxistek onartu zuten dekretuan dago. Testu hark legez kanpoko izendatu zituen *Frente Popular* zeritzan koalizioa osatu edo altxamenduaren aurkako jarrera hartu zuten giza talde guztiak; bigarren artikuluan, talde hauen ondasunak estatuaren esku geratuko zirela zioen dekretuak. Orduan ondasunak galdu eta gauregun bizirik dirauten alderdiek eta sindikatuek bakarrik izango dute galdutakoa eskatzeko eskubidea. Arrasaten, hauek: EAJ, Euzko Gaztedi, ELA



1930. urtean, etxe honetako lehen solairuan eta atzealdeko lorategia EAJri utzi zizkion Adan Yarza jaunak.

(orduan SOV), ANV, Alderdi Sozialista eta UGT.

### JELTZALEAK ETA ELA

Arrasateko alderdiek eta sindikatuek errentan hartuta edo norbaitek utzita zituzten egoitzak. Bat bera ere ez zegoen alderdiaren izenean. Horren arra-

**Eurenak ez ziren egoitzetan bazeuden ere, eta hori da Arrasateko kasua, alderdi batzuek asmoa dute etxe baten erabiltzaileei legeak aitortzen dizkien eskubideak aldarrikatzeko.**

• • •

**Marcos Vitoria:**

**“Arrasaten aberatsak liberalak eta Errepublikaren aldekoak ziren; pobreak karlistak; nazionalistak bien artean zeuden; sozialismoa langileen artean indartu zen”.**



Okendo jauregian zegoen *Herriaren Etxea*, Alderdi Sozialista eta UGT sindikatuen egoitza. *Trinketea* esaten zitzaion, zuen frontoiagatik.

zoietako bat diru eskasia izan zitekeen. Hala ere, nazionalak Arrasaten sartu zirenean, guztiak bereganatu zituzten.

EAJk 1910. urtean zabaldu zuen Arrasaten lehen ba-

tzokia, Mendikuteneko tabernaren ondoan. Baina urrutitxo zegoela eta, bazkide gutxi hurbiltzen omen zen hara. Hamai-ka urte geroago, 1921. urtean, Iturriotz kalera eraman zuten



Maiatzaren Lehena: bazkaria Trinketean. Belaunaldi Etena liburutik hartutako argazkia.



Iturriotz kaleko leku honetan zegoen batzokia 1920. hamarkadan. ELA sindikatuak ere hemen izan zuen gerra hasi arteko egoitza.

batzokia, botikaren ondoko etxera.

1930ean, Primo de Riveraren diktadura amaitutakoan, gaur egun Banco Guipuzcoano dagoen etxeko lehen solai-

ruan zabaldu zuten batzoki berria. Etxea Jose Maria Adan de Yarzak alderdiari utzitakoa zen, eta inguruan, gaur egun Azokale kalea den horretan, lorategi handia zuen. Euzko

Gaztedik bultzatuta, pilotalekua eraiki zen lur horietan. Gastuak ordaintzeko kreditua eskatu zen, Alejandro Berrio-Otxoa eta Basilio Mujika bermatzaile zirela; kredituari aurre egiteko hogeita bost hogereleko akzioak saldu ziren alderdiko bazkideen artean. Beraz, batzokia partikular batek utzitako etxea zen, eta bere lurretan egindako pilotalekua akzioak erosi zituzten herritarren izenean zegoen. Ondoren, Juventud Deportiva egin zen frontoiaren jabe, akzioak erosita, eta Gurea zinema eraiki zen hantxe.

ELA sindikatua (orduan SOV) 1919. urtean eratu, eta gerra hasi zenerako 700 afiliatu zituen Arrasaten. Iturriotz kaleko botikaren ondoko etxean izan zuen egoitza, EAJrekin batera. Sindikatuko bazkide gehienak EAJkoak ziren, nahiz eta ANVko batzuk ere bazituen. Jeltzaleak Adan de Yarzak utzitako etxera joan zirenean, ELA sindikatua Iturriotzen geratu zen.

## SOZIALISTAK ETA UGT

Alderdi Sozialistak Ferrerriaskaleko 46an izan zuen lehen Herriaren Etxea. Primo de

Riveraren diktadura garaian hasi zen indartzen Alderdi Sozialista Arrasaten. Ondorioz, Maalako arrabaleko Okendo etxeko bi solairu eta trinketea hartu zituen errentan. Hantxe jarri zuten Herriaren Etxe berria. UGT sindikatua ere, hantxe zegoen, sozialistekin batera.

Marcos Vitoria, aspaldiko sozialistaren hitzetan, gerra aurreko urteetan "Arrasaten aberatsak liberalak eta Errepublikaren aldekoak ziren; pobreak karlistak; nazionalistak bien artean zeuden, ez batean ez bestean; eta sozialismoa langileen artean indartu zen". Alderdi Sozialistak diru asko irabazi zuen trinketeari esker. Pilotan jokatzeko bai, baina batez ere bazkariak egiteko alokatzen zen. Irabazitako diruarekin *Café Universal* erosi (gaur egun *Kajoi* taberna dagoen tokia) eta Herriaren Etxea hara eramatekotan ziren, baina orduan gerra piztu eta asmoak bertan behera geratu ziren.

## GAINONTZEKOAK

ANV alderdia 1930. urtean eratu zen Arrasaten eta 50 bazkide zituen gerra piztu zenean. Alderdiko ordezkariak diotenez, Arrasaten egoitza eduki bazeukaten, baina ez dakite non. Orduko testigantzak lortzeko zailtasunak dituzte. Bizkaian ikerketa egin dute, baina Gipuzkoan oraindik ez.

Beste alderdi batzuk ere bazeuden Arrasaten 1936an, baina gaur egun ez daukate oinordekorik: Comunion Tradicionalista zeritzonak Erdiko kalean zuen egoitza, gaur egun Muruamendiaraz gozotegia dagoen etxean. Bazkideak ziren lokalaren jabeak. Errepublikarren egoitza, Monte tabernaren gainean zegoen, errentan hartuta. ■

-----  
Patxi Montero

Bigarren mailako Mondra taldekoa

## IKER LAZPIUR

**“Erdilari batentzat 24 gol sartzea ez da kopuru makala”**

— **Bigarren mailako kadeteentzat nolakoa izango da lehen aldia?**

— Bigarren tokian bukatu dugu, Bergara taldearekin puntuz parekatuta. Denboraldia ez genuen ondo hasi, baina apurka-apurka hobetzen joan gara eta azkenean goialdean bukatu dugu.

— **Erdilaria zara eta 24 gol sartu dituzu, marka ona, ezta?**

— Erdilaria naiz, baina aurrera begira jokatzen dut. Dena dela, defendatzea egokitzen zaidanean atzera jutzen dudan horietarikoa naiz. Erdilari postua gustatzen zait. Hala ere, aurrean jokatuta ere gustura ibiliko nintzateke.

— **Zeintzuk dira zure ezaugarriak?**

— Indarra daukat, salto ona eta teknikoa naiz.

— **Golak buruz ala hankaz?**

— 24 goletik, 12 penaltiz lortu ditut. Beste gehienak, buruz.

— **Sartu duzun golik politena?**

— Bergararen kontrako partiduan sartutako bigarrena. Baita Zumarragaren kontra sartu nuen lehena ere. Gol horri esker, berdinketa lortu genuen eta emaitza horrekin igoera aldirako sailkatu ginen.

— **Nolakoa izango da bigarren aldia?**

— Oso gogorra. Larunbatean Hamaika Battaldearen kontra jokatu behar dugu eta garaipea lortzea zaila izango da. Nolanahi ere, azken arte ez dugu etsiko.



## FUTBOLA Aurrean sendo



Preferente mailako Mondrak sailkapeneko laugarren tokian segitzen du, sendo. Azken partidaren Pasaia izan zuen aurka eta Jesus Mari Barrutiabengoaren mutilek 4 eta 2 irabazi zuten. Hiru puntu garrantzitsu igo ziren sailkapenera, eta beste hiru lortzeko asmoz abiatuko dira igandean 16:30etan Lesakara. Beti Gazte taldea hamabosgarren tokian dago, 27 punturekin.

Arrasatearrek jakin badakite puntuak lortzea euren eskuetan dagoela. Partida horretarako Callejak ezingo du jokatu, oraindik min hartuta dagoelako. Ezta Asier Lopezek ere. Asierrek bosgarren txartela ikusi zuen igandean eta partida bateko zigorra bete beharko du. Bestalde, bigarren mailako kadeteek goialdean bukatu dute lehen itzulia. Orain, igoerako fasea izango dute erronka. Emakumeei dagokienez, Mondrak Eibartarrak taldearen kontra egin beharko du lehia, igandean Eibarren. Lehen itzulian Mondrak egurra jaso zuen. Horregatik, ordaina hartzeko gogorekin joango dira.


## SASKIBALOIA Azkenean garaipea



Lehen faseko azken partidaren garaipea lortu zuen Arrasate Saskibaloi Taldeak. Zubiriaren mutilek emozioz betetako partida jokatu zuten Iturripen Bacomat taldearen kontra. Garaipea lortu arren, arrasatearrek sailkapeneko azken tokian bukatu dute. Jokatutako hemezotzi jardunaldietan hiru partida irabazi dituzte eta hamabost galdu. Hemen-

dik aurrera, jaitsierako aldia jokatu behar. Baina lehen neurketarekin hasi baino lehen, astebeteko atsedena izango dute. Arrasatearrek entrenatzaile berria izango dute bigarren aldirako. Roberto Azkarak hartuko du taldearen gidaritzat eta Iker Zubiria, orain arteko misterrak, jokalaria bezala segituko du.

## ESKUBALOIA Ezin irtenbidea aurkitu



Arrasate Eskubaloi Taldeko jokalariek animoak eta konfiantza behar dute. Azken tokian egoteak ematen duen urdurtasuna behin eta berriz igartzen ari da jokoan. Arrasatek boladaka jokatzen du ondo, eta horrela ezin aurkaria menperatu.

Datorren igandean 12:30etan, behealdeko beste talde bat izango dute nor baino nor. Deusturen kontra puntuak eskuratzea botikarik onena litzateke Arrasateko jokalariei indar berria emateko.

## ERRUGBIA Beldurrik? Ez




Arrasate Errugbi Taldeak Gaztediren, liderraren, kontra neurtuko ditu indarrak larunbatean Garagartzan. Partida arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Patxi Gorosabelen mutilek azken jardunaldiak irabazteko gauza izan direnez, uste dute Gasteizko Gaztediren kontra gauza bera gerta daitekeela. Norgehiagoka, zalantza barik, bizia eta gogorra izango da. Izan ere, Gasteizko taldeak teknika ona izan arren, indarrean oinarritzen baitu jokia.



# Deba Garaiko herrietan federatu barik daudenentzako kirol txapelketak

Deba Garaiko kirol zerbitzuek antolatuta, aurreko kirol txapelketak jokatu dira inguruko herrietan. Txapelketa hauek hiru helburu dituzte: batetik, talde batean aritzen ez diren pertsonak eta kirol batean lehiatu nahi dutenentzat txapelketa eskaintza handitzea. Bestetik, kirol desberdinekin bailarako txapelketak sortzea eta azkenik, herri bakoitzean antolatzen diren txapelketak bailarako herritarrei zabaltea.

Herri bakoitzean egingo diren txapelketek bi fase izango dituzte. Lehen aldian, denek denek kontra jokatu dute. Bigarren aldia, berriz, kopa edo kanporaketa mo-



Txapelketa hauetan federatu gabe dagoen edonork har dezake parte

duan. Herrietako txapelketa bakoitzak zazpi edo bederatzita asteko iraupena izango du eta hasieran behintzat partidak asteburuetan jokatu dira. Txapelketa hauetan parte har-

tu eta irabazle geratzen direnek sari berezia izango dute; Irabazleek herriko kiroldegiko urteko abonoak doan izango dituzte eta baita instalazioen erabilera ere.

Txapelketetan parte hartzeko ordaindu beharrekoa kirol zerbitzuetako bazkideentzat 1.000 pezeta eta ez direnentzat 2.000 pezeta. Dagoeneko lau txapelketa antolatu dira: Pala, frontenis, Squash-a, esku pilota eta tenisa. Une honetan frontenis eta squash txapelketak jokatzen ari dira Bergaran eta Oñatin. Txapelketa hauen inguruko xehetasun guztiak Musakolako kiroldegiko bulegoetan aurkituko dituzue.

## Asteburuetan Besaiderekin Formigalera joateko aukera

Besaide Eski Taldeak otsailaren 22tik apirilaren 5a arte irteerak antolatu ditu igandero Formigalera eskiatzeko. Prezioa 4.500 pezeta, autobusa eta eguneko forfaita barne. Izenematea Besaideren egoitzan egin behar da, ostegunetan eta ostiraletan, arratsaldeko 18:30etatik 19:30etara. Formigalera joateko Arrasatetik irteera goizeko 04:00etan izango da. Itzulera, berriz, arratsaldeko 17:00etan.

Asteburuko irteera hauez gain, Besaidek Aste Santuetarako bidaia antolatu du Alpetan eskiatzeko, apirilaren 10etik 18ra arte. San Jose



Neguko kirola gertutik gozatu eta bizitzeko aukera egongo da.

Zubian, bestalde, Baqueira Beretara joango dira. Aipatutako irteerei buruzko berri gehiago jakin nahi izanez gero, Besaideren egoitzara jo, tele-

fono honetara: 79 84 74.

Eguraldiak laguntzen badu, ondorengo hilabeteak primerakoak izan daitezke eskiatzaileentzat.

## Gipuzkoako karate txapelketa

Senior mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu da igandean Donostian. Joan zen astean jokatu behar bazen ere, arazo batzuk tarteko, igande honetara atzeratu da. Arrasateko Saioa karate eskolatik zortzi ordezkari joango dira: Trini Freire, Idoia Aranbuzabala, Alaitz Aranburuzabala, Garbiñe Tera, Mariano Santos, Jose Manuel Petite, Zigor Jimenez eta Erik Martin. Aipatutako karateka guztiak kumitean egingo dute borroka. Marianok eta Trinik, berriz, kumite eta kata espezialitateetan. Bestalde, Isidor Ugarte ere joango da, Isidorrek Gasteizen entrenatzen duen arren, txapelketan izango da.

AMAIA ESPARZA ALONSO ("MUGARIK GABEKO MEDIKUAK")

# "Herri txiroen alde be

**A**maia Esparza Mugarik Gabeko Medikuak ONGko prentsa arduraduna da. Arrasatear honek bost urte igaro zituen Madrilen kazetaritza ikasten. Harrezkero, Amsterdamen, Londresen eta Bartzelonan aritu da lan egiten gobernuz kanpoko zenbait erakundetan.

— Orain, Mugarik Gabeko Medikuak gobernuz kanpoko erakundeko prentsa arduraduna zara Bartzelonan. Zelan heldu zara lanpostu horretara?

— Bost urte bizi izan naiz Espainiatik kanpo eta gogoan nuen berriro bueltatzeko. Amsterdamen *Kazetarien Nazioarteko Federazioan* lan egin nuen prentsa askatasunaren aldeko proiektu batean. Londresen *Artikulo 19* gobernuz kanpoko erakundean (GKE) aritu nintzen adierazpen aska-

tasunaren aldeko proiektuan. Esperientzia horrekin eta etxera bueltatu nahi nuenez, Mugarik Gabeko Medikuak GKEra curriculum bidaltzea bururatu zitzaidan. Zortea izan nuen, prentsa arduradun baten bila ari zirelako. Beraz, hainbat azterketa gainditu ondoren, ni neu aukeratu ninduten.

— Zein da zure lana?

— Komunikabideekin harremanak izatea. Erreportajeak eta albisteak egiteko informazioa zuzendu eta pentsaurrekoak antolatu. Duela gutxi Perun izan nintzen *Informe Semanal* saiorako erreportaje bat egiteko. Gero, Afrika Erdiko Errepublikan. Toki horie-

tan gertatzen dena komunikatu behar badut, behartuta nago egoera gertu-gertutik ezagutzera.

— Esperientzia desberdina, baina aberatsak.

— Horrelako tokietan bizi den egoera ezin da parekatu hemengoarekin. Perun proiektua erreka batean gauzatzen da. Erreka oihanean dago eta Amazonaz ibaiaren adarra da. Berrogei egunean 90 komunitate bisitatu genituen. Komunitateak lau edo bost familiak osatzen dute. Egurrezko etxoletan bizi dira, ez dute edateko urik, ezta argirik ere, eta egunean behin jaten dute. Ez dute ezer eta jasotzen duten laguntza bakarra gurea izaten da.

— Zer eskaintzen dizu lan honek?

— Badakit ez dudana mundua konpondu behar, baina era bere-

**"Garbi izan behar dugu, egunero komunikabideetan egoera larriak agertzen ez badira ere, beti dagoela nori lagundu. Gure laguntza guztia behar dute"**



# dago zerbait egiteko”

an badakit, gu baino okerrago daudenei lagun diezakedala. Lan honek aberastu egiten nau. Azken finean, lanean nabil leku horietan bizi den benetako errealitatea ezagutua izan dadin.

**— Gobernuz kanpoko erakundeetan lan egiten duten kazetariak sentiberatasun handiagoa dute?**

— Kanpotik ezbehar batek bestera goazela ematen du. Guretzat ezbeharra da, baina horren barruan hobekuntza bat ikusten dugu. Horrelako lanean aritzeko sentitu egin behar duzu, bestela ezinezkoa litzaiteke. Gainera, GKEak ez direnez enpresa pribatuak, ez da diru asko irabazten.

**— Hemen jasoten dugun irudia, bat dator errealitatearekin?**

— Gaur egunera arte GKEak jendearengan erruduntasun sentimendua ezartzen saiatu dira. Horretarako irudi zehatz batzuk erabili dituzte: umeak gosez hiltzen, hilketak... Guk, alderantzizkoa bilatu nahi dugu. Txarto egon arren, egoera hobe daitekeela eta hobetzeko neurriak badaudela jakinarazi nahi dugu.

**— Horrenbeste irudi gogor**

**ikusi ondoren, jendea ez dago apur bat ohituta?**

— Ezbeharrak daudenean jendea hunkitu egiten da. Arzoa, berriz, beste bat da. 1.000 ruandar hiltzen badira eta tartean ez badago espainolik, albistea ez da kaleratzen. Ruanda eta Zaireko arazoekin milioi

identitate krisia du. Erljioak ez du balio eta politikan ez dugu sinesten. Baina gure inguruan gauza ikaragarriak gertatzen dira. Jendeak sinesteko zerbait behar du. GKEak alderdi politikoak bezalakoak dira, baina ideologia barik. Askotan GKEak alderdi politikoak baino

**“Hemengo irrati-telebistetan eta prentsan albisterik deigarrienak bilatzen dira. Guk, berriz, ideia batzuk zabaldu behar ditugu. Gu ez goaz informazio bila, sortu egiten dugu. Horregatik, gure kazetari lana eta hemen egiten dena desberdinak dira, helburuak dira desberdinak”**

askoko hildakoetara ohitu gara. Hortik beherakoa ez zaigu hain gogorra iruditzen, eta hori, jakina, ez da horrela.

**— Gobernuz kanpoko erakundeen boom-a ere ezagutu izan da, Zergatik?**

— Gaur egungo gizarteak

azkarrago erantzuten dute. Dena dela, GKEen boom-a ez dut uste ona denik. Batzuk kontrolaezinak dira. Hori dela eta, horrelako elkarteetan lan egiten dugunok profesionalak izan behar dugu. Bestalde, GKE batzuk ez daude prestatuta egin behar den lanerako.

**— Badago harremanik GKEen artean?**

— Bai. Iheslarien esparru batean *Mugarik Gabeko Medikak* erakundearen eginbeharra medikuntza alorreko laguntza ematea da: txertoak, injektzioak... Nazio Batuen Erakundea arduratzen da kanpoak antolatzen. GKB bakoitzak bere lana betetzen du.

**— Ez zarete beste lan batzuetan murgiltzen?**

— Mozambiketan *Minen Kontrako Sentsibilizazio* proiektua dugu. Ginean *Osauna Eskoletan* izeneko beste bat. Nairobin *Ihesa eta Sexu transmisioen bidezko gaixotasunen aldeko sentsibilizazioa* izeneko. Horrelako egoerei aurrea hartzea da garrantzitsua eta lan horretan heziketak du eragina.

**— Mugarik Gabeko Medikuekin nola jar gaitzke harremanetan?**

— Bartzelonako telefono zenbakia 902-25 09 02 da. Bilbon ere badugu etxe bat, telefonoa 94, 42 35 47 0. Jendeak diru laguntza emateko aukera du eta baita bazkide izateko ere. Bazkideek aldizkari bat jasoten dute hilabetero, egiten ditugun proiektuei buruzko berriekin. ■

## IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11  
ARRASATE

**Pavimentos AGR**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE  
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20

## ■ Jesus Mari Heriz

### UDALETXEKO DIRUZAINA



**B**eharbada bere aurpegia ez zaizu oso ezaguna egingo, bere lana ez baita jendaurrekoa, baina udalari ezer ordaindu diogun edo ez diogun, berak badaki. 41 urteko arrasatear hau udaleko diruzaina da hamalau urtean. Familian eta familiarentzat bizi da. Arrasatek lekua faltan duela dio. Ez da ez, eskakizun makala; zein ote irtenbidea?

- 1.- Zein da zure horoskopoa? Geminis.
- 2.- Sinestuna zara? Bai.
- 3.- Animalia bihurtzekotan? Txepetxa.
- 4.- Zure akats bat/gauza on bat? Alferkerria/Buru gogorra naiz.
- 5.- Zerk lotsarazten zaitu? Munduan diren desberdintasunek.
- 6.- Amets bat? Mundu aske eta baketsua.
- 7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Pobrezia eta gerrak.
- 8.- Gertakizun historiko bat? Jugoslavia zeneko gerra.
- 9.- Nor miresten duzu? Gurasoak.
- 10.- Zeri diozu beldurra? Gaisotasunari.
- 11.- Zeozer garbatzen zaizu? Denbora faltak.
- 12.- Negar egin duzun azken aldia? Samur gorritzen zaizkit begiak.
- 13.- Zer falta zaio Arrasateri? Lekua.
- 14.- Eta zuri? Emaztearekin oporretan joateko astebete.
- 15.- Lanbidez aldatzekotan? Kirol hezi-

- tzailea izango nintzateke.
- 16.- Arrasateko gustuko toki bat? Iturripe.
- 17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Kirola egin.
- 18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? Euskaldunon Egunkaria.
- 19.- Gustuko janari bat? Perretxikuak.
- 20.- Liburu on bat? *El clan del oso cavernario*.
- 21.- Filmik onena/txarrena? *Onena, Thelma & Louise*.
- 22.- Musika talderik onena/txarrena? Musika lasaia gustatzen zait.
- 23.- Telebistako saiarik onena/txarrena? *Bertatik Bertara/Sorpresa, sorpresa*.
- 24.- Egin dizuten oparirik politena? Ez dut opari materialetan sinesten.
- 25.- Denbora librea zertan pasatzen duzu? Familiarekin eta lagunekin.
- 26.- Oporretarako toki bat? Laredo.
- 27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Gauzak jasotzea.
- 28.- Gomendio bat? Lasai bizi, eta inori kalterik egin barik.
- 29.- Zeren alde emango zenuke bizia? Familiaren alde.
- 30.- 200 milioi pta. irabaziz gero? Gargartza aldean baserria erosiko nuke.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**  
**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**  
**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

AMAIA OTADUI, IRARLANGINTZAREN ARTISTA

# “Erakusketa hau apustua da niretzat”

Hogeitabost urte, Arte Ederretako ikasketak amaitu berri, azken urteotan egindako lanak erakusten hasi da oraintsu Amaia. Jai Zale eta Bizkai tabernetan lehenik, eta datozen asteetan. Harresi aretoan izango ditugu ikusgai arrasatear honen artelanak: kalkografia, xilografia, litografia eta serigrafia teknikak erabiliz sortutako 60 irarlan inguru.

**- Zer da irarlana?**

- Inprimatzean oinarritzen da.


Euskarri batean marrazkia landu, eta gerō, kolorea emanda, beste euskarri batean kopiak egiten dira. Marrazkia lantzeko erabiltzen den materialaren arabera, izen ezberdina hartzen du: kalkografikoa kuprean egiten da, litografia egurrean, xilografia harrian...

**- Eta zertarako erabil daiteke?**

- Lamina batekin etxeko horman jartzeko margolana egin daiteke, edo postalak, liburuetarako irudiak edo azala bera, serigrafiaz egurra apain daiteke, edo zeramika, lauza beirazta- tuak, erlojuak, platerak... Serigrafian kamiseten arloa izan daiteke ezaguna. Musika taldeen irudi eta izenekin kamiseta asko dago, baina arlo horretan sartzekotan, diseinu propioak eta serie txikiak egingo ditut. Merkatu hori gutxi landu da.

**- Harresi aretoko erakusketak berezitasunik izango du?**

- Aurrekoak baino osotuagoa izango da. Nire obra ia osoa jarriko dut hor. Jai Zale tabernan kalkografikoa erakutsi nuen bakarrik, eta orain beste hiru teknikak erabiliz egindakoak ere aterako ditut.



**- Lan handia eman dizu?**

- Bai. Sei hilabete egin ditut prestatzen. Laukiak neronek egin ditut, serieetako kopiak... Apostua da niretzat. Gerora begira ere, saltzen ez ditudan lanak batean eta bestean erakutsiko ditut, tabernetan batez ere.

**- Zer preziotan jartzen dituzu?**

- Eskuratzeko modukoak direla uste dut. Zuri-beltzean edo kolore bakarrean egindako irarlanak 2.000 pezetatan saldu ditut. Garestiena 15.000 pezetakoa izan daiteke.

**- Zer asmo duzu aurrera begira?**

- Itxaron eta ikusi. Badirudi jendea gustura geratzen dela nire lanak ikusitakoan, baina saltzea, besterik da. Gainera, lan guztiak ez ditut saldu nahi, pena ematen dit. Badut aurrera egin eta probatzeko asmoa behintzat.

**“Saltzen ez ditudan lanak batean eta bestean erakutsiko ditut, tabernetan batez ere”**

## aste gazte

■ **BEKAK**

• Espainiak atzerrian dituen merkataritza bulegoetan lan praktikak egiteko prestakuntza bekak, ICEXek deituak. Epea: otsailak 28.

■ **LANA**

• Drogomenpekotasunen prebentziorako erdi mailako behin-behineko teknikari bat nahi du Bergarako Udalak. Epea: otsailak 19.

• Liburuzain laguntzaile bat nahi du Arrasateko Udalak, aldi baterako eta egun erdiz, Santamaina auzoko liburutegian lan egiteko. Epea: otsailak 23.

■ **IKASTAROKAK**

• MCCk eraturik, kooperatiben kudeaketari buruzko ikastaroa eta praktikak. Epea: otsailak 28.

■ **LEHIAKETAK**

• Martxoak 8, hormiduri lehiaketa, Arrasateko emakume sailak antolatuta. Epea: otsailak 18.

• Arabako Foru Aldundiak, hurrengo lehiaketak eratu ditu:

1- VII Arte Plastikoetako Amerika anuala. Otsailak 28

2- Ignazio Aldekoa XXVII, Ipuin Lehiaketa. Epea: irailak 24.

3- Sorkuntza Historikoa-ren IV Lehiaketa, Literatura modalitatean eta modalitate grafikoan. Epea: azaroak 30.

4- Becerro de Bengoa X. literatura sariketa. Epea. urriak 1

5- Ernestina de Cahmpourcin IX poesia lehiaketa. Epea: urriak 1

6 - B. Arratibel eskulangintza lehiaketa. Abenduak 17.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, 2 bainugela, egongela eta trastelekua. 104 m<sup>2</sup>. Tel.: 79 27 45.

• Otorala Lizentziatua kalean 45 m<sup>2</sup>ko estudioa salgai. Kontsultarako aproposa. Tel.: 79 27 45.

### 2. Erosi

• San Andres auzoan etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke 60 m<sup>2</sup> ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alojeran jarriko nuke, ahal bada ikasleei. Aretxabaletan dago, futbol zelaiaren ondoan. Tel.: 79 63 49. Iñaki. Gaueko 21:00etatik aurrera.

### 4. Errentan hartzeko

• Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 79 02 26. Arantzazu.

• 3-4 logela dituen etxebizitza behar dut lehenbailehen. Tel.: 908 14 48 42. Jesus.

• Etxebizitza txikia, atiko edo teilatutua alokatuko genuke, merkea balitz. Tel.: 70 09 52. Gauez.

• Hiru lagunentzako etxebizitza behar da Arrasaten. Tel.: 77 12 00. Xabier Zagartzazu.

### 5. Etxe konpartituak

• Gela bat nahi dut Arrasateko etxe konpartitu batean. Tel.: (94) 438 69 17.

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten, jendearekin bada hobe. Tel.: 36 30 40 edo 21 57 07. Unai.

• Alokaturako etxe batean edo pentso batean sartuko nintzateke. Deitu 79 09 00 telefonora. Olatz, Gizarte laguntzaileaz galdetu. Roberto.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

• Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

### 9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauez.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

• Leintz Gatzagako Zuhaitz jatetxea alokatzen da. Tel.: 71 41 21.

• Loradenda eta dietetika denda alokagai Berrizen. Tel.: (94) 682 42 28.

• Bergarako Ubera auzoan lokala daukat alokatzeko. Tel.: 79 05 63. Utzi mezua.

• Fernandez janaridenda alokatu nahi da. Oso bezero onak ditu. Tel.: 79 48 91 (Aurora). 79 96 39 (etxe-koa).

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuk lokal baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek lokala errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Umeak zaintzeko edo orduka garbiketarako egiteko gertu. Tel.: 71 53 74. Bazkalorduetan edo gauetan deitu.

• Emakume euskaldunak umeak

zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tel.: 79 07 73.

• Pertsona gaztea edozein lan egiteko gertu. Tel.: 79 48 97.

• Esperientziadun klinika laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 09.

• Asteburuetan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

• Esperientziadun saltzailea lan egiteko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

• Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 03 42. Eguerdietan.

• Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Orduka ere bai. Tel.: 79 51 29.

### 18. Eskaerak

• 17-25 urte bitarteko kamareroa behar da. Tel.: 79 60 43. Isi.

• Baserri lanetarako pertsona bat behar da. Tel.: 33 05 95.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 35 73.

• Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

• Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

• Adineko senar-emaztea zaintzeko 35 urtetik gorako emakumea behar da. Euskalduna bada hobe. Tel.: 76 51 67. Arratsaldeko 20:00etatik 22:00era arte.

• Kamarero gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

### 19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko neska bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Eskuak jarrita osatzeko modu naturala (Reiki). Tel.: 79 45 74.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Alemaniera ikasten hasi nahi baduzu, eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 79 82 42. Ainitze.

• Psikologoak OHOk eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 77 17 02.

• Jantzigintza eskolak ematen dira. Tel.: 79 53 36. Izaskun.

## 21. Eskaerak

• 2. BUPeko ikasle batek matematikako eskolak gaztelaniaz hartuko lituzke. Tel.: 79 55 96.

• 2. REMeko ikasgaiak lantzeko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 19 36. Aitor.

• Kontabilitateko eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 79 36 83. Gaueko 21:30etatik aurrera deitu.

• 1. LOGSEko ikasle batek kimika eta matematika eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 37.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Ford fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 37 68.

• Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai. Gris metalizatua. 5 martxaduna eta estriboetako babesgarriekin. Tel.: 79 09 92. Eguerdiko 13:00etatik 16:00etara.

• Yamaha 250 SR Special, SS-AM motorra salgai. 9.000 km. Prezioa: 250.000 pta. Tel.: 79 70 58.

• Peugeot 405 GLD autoa salgai. 1.900 diesela. Gorria. Egoera onean. VI-N. Tel.: 70 02 05

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Marrazketako mahaia salgai. Merkea. Neurriak: 81 x 140 zm. Tel.: 79 09 92. Bazkalorduetan edo gauez.

• Baserriko kiwi ederrak salgai. Aukera ederra! Tel.: 79 97 84.

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Egur kolorea duen sehaska berria merke saltzen da. Tel.: 79 56 53. Isabel.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur berogailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

• Bigarren eskuko Mercury markako parapentea salgai. Tel.: 79 48 09. Itziar.

### 27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

### 30. Hartu

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukalde eta hozkailua behar ditu. Tel.: 79 37 68.

### 31. Galdu

• Urtarrilaren 10ean Untzila eta Are-

txabaleta bitartean irratia transmisio-rea galdu zitzaidan. Tel.: 79 41 57.

• Giltzak galdu ditut Uribe auzoan. Tel.: 71 53 40.

• Urtarrilaren 20an edo 21ean urrezko eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten. Zuria eta gorria da. Tel.: 79 84 23.

### 32. Aurkitu

• Gurutze idatzita daraman katea aurkitu dut. Tel.: 79 77 79.


• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

• Muru bidean ezkontzako eraztuna aurkitu nuen. Tel.: 79 53 40. Gaueko 10:00etatik aurrera.

### 37. Bestelakoak

• Zure etorkizunaz -osasuna, lana eta maitasuna-jakin nahi baduzu, zure esanetara naukazu telefono honetan: 929 98 62 20.


• Artzain txakur aleman eme baten bila nabil nirearekin nahasteko (nirea artzain alemanaren eta artzain alsaziarren nahasketa da). Tel.: 70 03 37 edo 79 36 12.



**WERU®**  
**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95  
ARRASATE



PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



Jada ez daukazu zure aurrezkiak epe jakin batera lotuta izan beharrik.




## Orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkia duzu.

**Ongizate Aurrezpenaren abantailak libreta arruntaren eta eperako libretaren aldean.**

	Libreta arrunta	Eperako Aurrezkia	Ongizate Aurrezpena
Interes handia	Ez	<b>Bai</b>	<b>Bai</b>
Eskuragarritasuna	<b>Bai</b>	Ez	<b>Bai</b>
Edozein kopuru sartzea	<b>Bai</b>	Ez	<b>Bai</b>

Aurrezteko sistema berriak ugaritu egin badira ere, aurreztaileen %50ek nahiago du ohiko Eperako Aurrezkia, nahiz eta epearen eragozpena izan. Pertsona horiek orain Euskadiko Kutxaren Ongizate Aurrezkia dute. Eperako Aurrezkiaren errentagarritasun, segurtasun eta erraztasun berberaz gozaten jarrai dezaten eta, gainera, beren aurrezkiak askatasun osoz eskuratzeko aukera izan dezaten. Ongizate Aurrezkia. Eperako aurrezki bezelakoa, baina eperik gabe.

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan edo 901- 333 444 telefonoan.



Erantzun zuzena.



# Zaldibarko taldeen zozketa astelehenerako Mondrasporten

Aurten ere, Zaldibar txapelketako bigarren aldiko zozketa zuzenean egingo da Mondrasport kirol saioan. Astelehenean gaueko 22:00ak inguruan, sailkatuko diren talde guztien izenak lau ontzitan sartu eta banan-banan multzoak osatuko dira. Bigarren aldian lau multzo nagusi izango dira, bakoitzak zortzi taldez osatuta. Aldi honek zazpi jardunaldi izango ditu eta multzo bakoitzetik lau taldek lortuko dute hirugarren faserako txartela. Epaileak antolakuntzak ezarritako ditu.

Astelehenerako Mondrasport saioan zozketaz gain, Arrasateko kirol taldeen partidetako laburpen luze eta sakonak ikusi ahal izango dira. Era berean, herritarrek Arrasate Kirolak Lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute. Itxaro Zubillagak aurkezten duen kirol saioa gaueko 21:30etan hasiko da.



Bigarren aldian taldeak nola banatuko diren ezagutu ahal izango da Mondrasport kirol saioan astelehenerako.

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### LARUNBATA

9:00 **Albistegia**  
9:30 **Musika**  
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarriekin.  
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.  
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**  
9:30-11:00 **Goizoro**  
14:30-16:00 **Bixau orduan**

### GAUEZ

#### Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

#### Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

#### Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek egindako magazina.

#### Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.

#### Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.  
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 14	ASTELEHENA, 16	ASTEARTEA, 17	ASTEAZKENA, 18	OSTEGUNA, 19	OSTIRALA, 20
Astean zehar eskainitako saioarik interesgarrien errepika.	13:30 <b>Astebete</b> . (Errepika)	13:30 <b>Mondrasport</b> . (Errepika)	13:30 <b>Lotsa Barik</b> . (Errepika)	13:30 <b>Munduari Buel</b> taka. (Errepika)	13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)
13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . Finalaren errepika.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	19:15 <b>Kukaratxa Motel</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport</b> . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak eta lehiaketa astelehenero.	21:30 <b>Lotsa Barik</b> . Maier Uranga. Gonbidatuak: Deskontrol taldeko kideak.	21:30 <b>Munduari Buel</b> taka. Elene Alberdi. Asier Elortza eta Lauri Azkargorta bergarrek, Mexiko, Guatemala eta Belicera egindako bidaiaren berri emango dute.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	21:30 <b>Astebete</b> . Patxi Montero. Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 <b>Kaleidoskopia</b> . Gonbidatua: Bad f-Line taldeko Rakel.				21:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munain. Gaztetxoentzako lehiaketa.	

**E**z dago zalantzaririk: Bedoñak paraje zoragarriak ditu. Gaur bezala, lehen ere mondragoetarrak erruz joaten ziren denborapasan. 1952ko egun hartan, argazkiko lagun hauek Alejandro Iturbe *Malberen* inguruan elkartu ziren. *Malbe* mutilzahar ospetsua zen, Txomin Iturberen aitaren osaba. Gaitzizena baserritik zetorkion. Artzaintzan ibiltzen zen eta umorez beti soberan.

Argazkia Errasti tabernaren inguruan aterata dago, atzealdean Udalatx dagoela. Zutik ezkerretik hasita, Felix Ugalde, Alejandro Iturbe *Malbe* eta Joxe Unzueta, orain hiru hilabete hil zeha. Belauniko Felix Garai eta Alberto Ruiz de Azua.

*Berriemailea:*  
Alberto Ruiz de Azua.  
*Argazkilaria:* Lasagabaster.



**MUXIBAR PIZZERIA**  
79 11 25  
**ADI!!!**

otsailak 9tik aurrera...  
**ORDUTEGI BERRIA**

arratsaldeko 6etatik aurrera  
**ZABALIK egunero!**

## LAN ESKAINTZA

### LIBURUZAIN LAGUNTZAILE BAT

bi urtez eta egun erdiz Santamianako Liburutegian aritzeko kontratatu nahi du Arrasateko Udalak.

#### Baldintzak:

- Bibliotekonomia, agiritegia eta dokumentazio ikasketak.
- 3. hizkuntza eskakizuna.

**Oinarriak:** Udaletxean jaso daitezke.

**Izena emateko epea:** Otsailare 23ra arte, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

**ALMEN**

**SAN FRANTZISKO  
XABIER**

**SAN VIATOR**

**UMEZAINZA**

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



# Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

**MATRIKULA** otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

# zatoz ezagutzera

# Kangoo

Express



**Zatoz orain zure KANGOO-aren bila,  
hilabete honek 28 egun besterik ez ditu eta!**

**Otsaila, Diesel hilabetea MECAn.**

**MECA LANTEGIAK**

San Andres auzoa, 8

Tel.: 79 59 99

ARRASATE



**RENAULT**